

# Gini indizearen zuloa

**E**rrenta banaketaren ezberdintasunak neurtzeko orduan, Gini indizea da ezagunetako bat. Ehun urte beteak dituen koefiziente honek herrialde jakin batean errenta banaketa nolakoa den esaten digu 0 eta 1 bitarteko balioak hartuz. Berdintasun osoko herrialde batean 0 balioa hartuko luke eta beste muturrean, desberdintasun osoko herrialde batean, 1 balioa. Errealitatean noski, koefizientea tarteko balioen artean mugitzen da eta bereziki baliagarria da konparaketak egiteko. Hau da, erabilgarria da oso herrialdeen arteko desberdintasunak alderatu edota herrialde jakin baten desberdintasun mailak denboran zehar duen joera aztertzeke.

Zentzu horretan, Gini indizearen ekarpena oso garrantzitsua izan da: hankaz gora jarri ditu ohiko Barne Produktu Gordinaren araberrako rankingak. BPGk errenta maila neurtzen duen heinean, herrialdeen batez besteko errenta mailarekin lotuta dago eta horrenbestez, pobrezia mailarekin. Desberdintasunak oster, banaketarekin daude lotuta. Herrialde oso txiroetan desberdintasun handiak egon daitezkeen modu berean, errenta maila handiko herrialdeetan ere desberdintasun handiak ezkuta daitezke; Brasil edota AEBen kasua litzake.

Gini indizeak gizartearen osotasunean dagoen desberdintasuna islatzen du, baina ez digu ezertxo esaten gizartearen baitan gertatzen denaz. Muga horretaz José Gabriel Palma ekonomialari txiletarra ohartu zen XXI. mende hasieran. Herrialdez herrialde biztanleriaren muturrekin zer geratzen zen aztertuta, ikerketa sakona egin zuen. Horretan zebilela fenomeno politiko kuriosoz jabetu zen: munduko herrialde guztietan klase ertainak aberastasunaren zati berdintsua bereganatzen du, aberastasunaren erdia alegia. Bere datuekin frogatu zuen ezberdintasunaren muina



Aiala Elorrieta  
EKONOMIALARIA

Gini indizearen ekarpena oso garrantzitsua da: hankaz gora jarri ditu ohiko BPGren araberrako rankingak. BPGk errenta maila neurtzen duen heinean, herrialdeen batez besteko errenta mailarekin lotuta dago eta horrenbestez, pobrezia mailarekin. Desberdintasunak oster, banaketarekin daude lotuta, gizartearen osotasunean dagoen desberdintasuna islatzen du, baina ez digu ezertxo esaten gizartearen baitan gertatzen denaz

muturretan dagoela. Hau da, gakoak aberastasunaren beste erdiaren banaketan dago: gaztaren beste erdia nola banatzen den gizartearen %40 pobreenaren eta %10 aberatsaren artean.

Hego Ameriketako herrialdeetan errenta desberdintasun handiagoak daude herrialde nordikoetan baino. Baina bi eskualdeetan klase ertainari dagokion aberastasuna antzerakoa da: klase ertainak gaztaren erdia eramateko gaitasuna errepikatu egiten da herrialdez herrialde. Aldiz, aberatsenen eta txiroenen gaitasunak oso desberdin portatzen dira herrialdez herrialde.

Ñabardura hau oso baliagarria zaigu politika publikoak ebaluatzeke bidea ematen duelako. Txileri begira, Palmak argi ikusten du azken hamarkada hauetako ezker-zentroko gobernuen porrota: desberdintasunak murrizteko saiakerak egin dituzten arren, %10 aberatsenak zeukanari tinko eutsi dio. Horrexegatik desberdintasuna oso gutxi murriztu da Txilen eta ezker berriak arrakasta lortu badu gutxieneko soldata eta familia poltsari esker pobrezia murriztu duelako izan da.

Palmaren emaitzek mahai-gainean jartzen dute desberdintasunak murrizteko politika publikoak %10 aberats horretara zuzentzea ezinbestekoa dela: egiturazko zerga erreformatzea, zergen iruzurra sakon ikuskatu eta zigortzea, eta paradisu fiskalekin amaitzea.

Txiletik gurera salto eginez, begira diezaiegun gure erakundeei. Oso trebeak dira biztanleria txiroenaren kalterako murrizketak aplikatzen eta eliteei geroz eta pribilegio gehiago aitortzen. EAEn eta Nafarroan, sozietateen gaineko zergari begiratzea baino ez dago horretarako. Bada, pobreenen kontra aplikatu ordez, murrizketak bidera ditzatela goiko mutur aberatsenak gaztaren zati handiegiaz jabetzeko dituen tresnak gutxitzea. ■